

Piarres Larzabal: biografia

(1915-1988)

Etxekoak

Piarres Larzabal 1915ko maiatzaren 7ean sortu zen Azkainen.

Aita, Alexandre, Urruñarra zuen, 1876an sortua eta 1959an zendua Azkainen (83 urtetan);

Ama, Maria Carrera, Beratarra zuen, 1889an sortua eta 1970ean zendua Azkainen (81 urtetan);

Aitatxi-amatxiak zituen:

Aitaren aldetik, biak Urruñarrak, Pascal-Antoine Larzabal eta Françoise Tellechea;

Amaren aldetik: Francisco Carrera, lesakarra eta Graxi Lasaga, beratarra.

Alexandre eta Maria 1909ko maiatzaren 21ean ezkondu ziren eta bost haur ukan zituzten, baina bat hil zitzaien, Marianne, bi urte zituela. Beste laurak ziren: Antoine, François, Pierre eta Philomène. Beren gurasoek abandonatu bi neskatxa paristar ere, Henriette eta Suzanne, altxatu zituzten beren haurrak bezala.

Antoine edo Antton soldadugoaren egitera joana zelarik Angoulême hirira, zortzi egunen buruko nolabait hil zen eta Armadako buruzagiek ez zieten etxekoei haren gorputzaren ikusteko eskubiderik eman.

François edo Pantxoa, hura berriz, 1945ko otsailean, gauaz kontrabanduan ari zelarik, muga zaintzen zuten *Maquisards* taldeko senpeter gaztetxo batek, beldurrak harturik, tirokatu zuen Larrungo Zizkoitz bentaren ondoan. Larriki zauritua, delako talde hartako gizonak Darricau klinikara eraman zuten baina gau hartan berean hil zen.

Piarres Larzabalek sei iloba bazituen: Pantxoaren bi semeak (Alexandre eta Firmin) eta Filomenaren lau haurrak (hiru alaba eta seme bat: Maritxu, Dominika, Françoise eta Daniel). (1)

Haurtzaroko bi etxeak

Piarres Larzabal *Mixelenea* baserrian sortua zen, Sara aldera zegoen herriko azken etxean.

Bordariak edo maizterrak baitziren, Larzabaltarrek baserri handiago bat bilatu zuten eta aurkitu: *Isabelenea*. Piarresek zortzi urte zuen. Isabelenean egon ziren 1961a arte. Gero sartu ziren berek eraiki *Ur Kanta* etxe berrian.

Mixelenea baserria aldiz, emeki-emeki, lurrera erori zen. Haren tokian, gaur egun, txakurtegi handi bat dago.

Gerla denboran sortua

Lau urte iraun zuen Lehen Mundu Gerla denboran sortu zelako, Piarres jadanik koxkortzen hasia zen bere aita ezagutu zuelarik.

Hamalau urtetan idatzi kobla batzuetan kontatzen zuen:

Hiru urteren buruan etorri zelarik,
Piarres agurtu zuen lehenbizikorik.
Honek ikusirikan bizar handi hura,
Beldurturik, negarrez joan zen etxera.

Jakindu zuelarik bere aita zela,
Harritua egon zen soldadu hari begira.
Eta hau hasi zelarik musu bat ematen,
Aitatxiren altzora lasterka joan zen. (2)

Hurtzaroz

Piarres mutiko bihurria omen zen, bihurria eta zalapartaria.

Amari erran ziolarik apeztu nahi zuela, ama harritu zen: “Hi, apez? Sobera gaiztoa haiz, to!». Piarresen errefera: “Apez ona izateko, pixka bat gaiztoa izan behar da”.

Eskolako irakasleaz aldiz hauxe zioen:

“Hainbeste zarpaldi hartu izan dut harenganik, hainbeste aldiz entzun “avec ton sale basque... Ganich de Macaye» eta horrelatsuko goxokeriak, non, haren aiherkunder, hark hastio zituen guziak bilakatu baitziren enetzat maitagarri.» (3)

Piarresek, bere aldetik, nor zuen bada miresten? Berehala jakinen dugu:

“Gizon zahar bat zen, etxola batean bizi zena. Iñacio Beltza deitzen zuten. Karlista izana zen eta gerla egina zuen Santa-Cruz apaiz famatuaren manupean. Haren solasek piztu ametsetan, franko aldiz, karlista jantzia soinean, hamaika Español “Beltzetarik” engainatu, tirokatu eta paloztatu izan ditut. [...] Ez dut nik izan hura baino irakasle hoberik. (4)

Piarres Larzabal, herriko eskolan egonik, hamaika urtetan, aitamek ezarri zuten Hazparneko San Josepe ikastetxean. Bi urteren buruan joan zen Uztaritzeko seminario ttipira. Entzun dezagun bertan irakasle zegoen Piarres Lafitte kalonje zenaren ikusmoldea:

“Nik Uztaritzen zaitut ezagutu. Orduan zinen mutiko torropilo gorraile bat, begi animale batzuekin, buru-sorbaldak doi bat makurtuak. Ez zenuen, denbora haietan, “Miss Ascain” baten egiteko gai handirik. Baina bazenuen bertzerik. Hogeita hamazazpi urte hauetan eman ditudan nota guziak atxiki ditut. Behar dut erran, alemana irakasten nizularik, behin 12 eman nizula, bietan 13, bertze aldi guzietan 14. Ez da errateko baizik eskolier hauta zinela; zure plazak araberakoak ziren, beti lehenetan, eta urtearen buruan lehen. Berdin euskarazko lanetan.” (5)

Piarres, gero, Baionako seminario handira joan zen, eta udan, sasoiaren egiten zuen Donibane Lohizuneko ostatueta zerbitzari gisa.

Soldadugoa Parisen

Soldadugoaren egitea, berak galdeturik, aitzinatu zuen, eta 1933an Parisera deitua izan zen, hemezortzi urte zituela beraz.

Soldadugoak, garai hartan, bi urte irauten zuen. Eta bi urteak ederki baliatu zituen: alde batetik erizain titulua erdietsi baitzuen, eta bestetik, Armadako teatro talde batean, Molièren hizkuntzan, antzezten ikasi baitzuen.

Elkarrizketa batean erraten zuen:

«Parisen, soldaduen antzerkilari taldean nintzen, eta uste dut askok sentitzen zutela banuela farreginarazteko dohai hori. Asko lan egin dut teatro jai horietan, frantsesez. Gustua hartu nuen eta ikusi nuen gauzak nola apailatu behar ziren, eta etorri nintzenean Semenariora, izendatu ninduten antzerki zuzendari. Seminarioko apezgai guziei ematen zitzairen urtean behin edo bitan komediaren bat. Soldadutzari esker eta seminario handiari esker, sartu nintzen antzerki munduan.» (6)

Aitormen hau ere egiten zuen:

“Pentsatua nuen, soldadugoaren ondotik hautatuko nuela, ea behar nuen apeztu ala ez. Eta soldadugoak ninduen finkatu apezteko xedetan.” (7)

Soldadugoaren bigarren urtean, 1934ean beraz, idatzi zuen “Irri eta nigar” komedia laburra, geroago parrokiako taldeek eman zutena.

Apeztu orduko, gerlara joateko deia...

Henri-Jean Houbaut Baionako jaun apezpikuak, 1939an, apez ordenatu zuen Piarres Larzabal eta bikario igorri Hazparnera. Hazparneko hirugarren bikario karguarekin.

Baina gerla hastear zegoen eta kasik berehela deitua izan zen Baionara, soldadu erizain gisa. Gero, Alemaniako mugara eramán zuten.

Frantziako gerla, hastetik bururaino, 49. Erreximenduarekin egin zuen.

Henri Arbeletche baiones kapitainak kontseilaturik, “Corps francs” deitu gerlari berezien taldean sartu zen. Baina Naziak franko laster Vosges departamenduko Raon l’Etape herrian arrastatu zuten eta “Stalag IV B” preso-zelaian sartu. Haren lehen lana izan zen, hilen gorputzak biltzea eta eskorgetan ospitalera eramatea. Usainduak baldin baziren, gorputzak ezantzaz (gasolinaz) ihiztatzen zituen eta erretzen.

Bere oroitzapen liburu batean (8) irakurri dugu arras gaizkitu zela Alemaniako ospitaleetan, ikaragarriko beheitikoa ematen zuen “disanteria” deitu eritasuna bildua zuten presonerrak ezin sokorrituz.

Kasik hil-zorian zegoela, Gurutze Gorriko kide batzuek erdietsi zuten haren libraraztea. Haiei esker, ongi artatu zuten Suizako ospitale batean eta gero Lyon hiriko eritetxean.

Hazparnen bikario

Larzabal apez gaztea Euskal Herrira itzuli zen 1942an. Frantzian gandi bezala, Hazparnen ere Alemanak baitziren nagusi, delako bikarioa, baleki-bale, emazte arropaz bezti etorri zen bere apeztxera.

Garai hartan, kasik Hazpandar guztiek bazuten beren izengoitia. Ikusi zutelarik bikario berria jende xehearekin aise gurutzatzen zela, irri egitea eta irri eginaraztea

asko gustatzen zitzaizkiola, «Kaskarot» deitu zuten. «Kaskarot», Donibane Lohizuneko arrantzaleen emazteak oroitaraziz...

«Kaskarot», behar bada kanpo, baina barnez eta kaskoz, Larzabal, besterik zen. Libertatearen izenean, bide arriskugarria hartu zuen. Erran nahi baita frantses Erresistentzian sartu zela, besteak beste ekintza hau egiten zuela:

«Nik eta nire taldeak Larrun mendia atakatu genuen. Gainean radar bat muntatua zuten Alemanek. Eskopeta eta abarrez eraso genien eta militarki hartu.» (9)

Horrelako ekintzen ondotik, Piarres bere aitamen etxera joaten zen, Azkainen zenbait egunez erdi gorderik egoteko. Eta batzuetan, alegia deus ez, aitarekin itzultzen zen Hazparnera, eta aita dantzari trebea baitzen, Hazparneko gazteriari fandangoak irakasten zizkion.

Frantses Erresistentzia garaian, *commandant* gradua zeukan Larzabalek eta parte hartu zuen «Comité de Libération» taldean, gerla denboran gaizki portatu zirenak epaituz. Ondorioz, Hazpandar jaun batzuk preso atxikiak izan ziren Baionako Polo-Beyrisko kanpo batean.

Alemanek lekuak hustu zituztelarik, Frantzia Gobernu berria jarri zen eta manatu zuen armada osoki antolatu behar zela. Horrelaxe beraz, Larzabal apezaren eta Goalard jendarme buruaren gain ezarri zuten, Hazparneko eta inguruko soldadogai gazteen prestakuntza. Prestakuntza hura larunbat goizero egiten zuten eta hiru urte iraun zuen.

Baina gerla ondoan, Larzabalek, bi sail akuilatu zituen bereziki: antzerkigintza eta langile gazteen formakuntza.

Bai, barra-barra hasi zen komedia idazten.

Garai hartakoak dira: *Merkatutik*, *Gerla urte*, *Kontrabandistak*, *Ferrando*, *Dendarietan*, *Eiherazainaren astoa*, *Manez ohoretan*, *Sehi berri* obra airos laburrak.

Gazteriarentzat bilkurak antolatu zituen, labororientzat JAC (Jeunesse Agricole Chrétienne), eta langileentzat JOC (Jeunesse Ouvrière Française) mogimenduen bitartez.

Hazparneko CFTC (Confédération Française des Travailleurs Chrétiens) taldeko omonier (kapilau) izendatu zuten.

Behin, langileak greban jarri ziren eta karrketan gaindi manifestatu zuten. Elizaren aitzinean pasa zirelarik, Larzabal bikarioa esku-zartaka (txaloka) hasi zitzaien. Hori jakin zutelarik, aztoratu eta haserretu omen ziren nagusiak!

Zokoako erretore

Hamar bat urte Hazparnen bikario zela eta, erretore izateko adina bazuela, Léon-Albert Terrier jaun apezpikuak, 1951an, Santa-Graziko erretor izendatu zuen... Larzabalek ez onartu! Ez baitzuen, alabaina, hain gazterik «ehortzia» izan nahi...

Orduan Zokoara joatea proposatu zion. Urruñako eta Ziburuko kostaldea jendeez azkarki emendatzen ari zela eta, parroquia berri baten sortzeko. Desafio hura bai, gustatu zitzaioala!

Bere lehen egoitza, Zokoan, *El Sol* etxearen azpikaldea izan zen. Garajeen bizitzea erabaki zuen erretore berriak, ohea eta mahai luze bat ezarriz; jabe ohiaren lantokia aldiz, kaperatxo gisa antolatu ondoan, bere lehen meza 1951ko azaroaren lehen kantatu zuen, Omiasainduz.

Baina helburu nagusia zen “egiazko” eliza berri baten eraikitzea.

Hain zuzen, asmo horrekin, Baionako Elizbarrutiko elkarteak, 1944ean, Urruñako herriari erosia zion lur zati bat. Baina eremu hartara heltzeko ez zegoen biderik, eta bistan dena, ez urik, ez elektrikarik.

“Haizkora eta sega berriak erosirik, lotu nintzen tira-ahala lurraren garbitzeari. Izerdi onik atera nuen. Jendea harriturik zegoen niri beha, ez baitzuen behinere ikusi apezik sotanetan ari holako lanetan.

Lekuko gehienek irri egiten zuten naski, beren artean ziotela: «Apez xoro horrek eliza bat eraikiko omen dik toki hortan. Zentimorik ez omen dik. Laster ikusiko dik hobe duela hor patata ereiten hastea». Kasurik eman gabe, ni neureari ari nintzen.” (10).

Bere lehen elizkizunak, oraindik bukatua ez zen elizan, 1953an eman zituen.

Etxahun antzerkia eta besteak

Egunaz pala, pikotza, haizkora eta sega eskuan, gauaz aldiz luma... Baldintza txar eta egoera larri hartan idatzi zuen, hain zuzen, *Etxahun* obra, Hazpandarrek 1952ko azaroaren 15 eta 16an taularatu zutena.

Pierre Duhour Hazparneko berrikerariak *Herria* astekarian idatzi zuen haren irudiko “izkirio lanak ez lezake deus gal gordainkeria batzuk kenduz, seigarren manamendua hunkitzen baitute sobera solasek, behar handirik gabe...” Artikulua ez zen segur bortitza, baina jendeek lerroen artean nahi dutena irakurtzen baitute,

gordainkeria bilakatu zitekeen lizunkeria, eta fama txarrak kurritu ziren. Adulterioaren aipatzea bera, bekatu!

Funtsean, Larzabalek berak erantzun bat egin zion, “Etxahun eskandala bat ote da?” izenburupean hauxe idatziz:

«Etxahun bai gordainki izkiriatura da... Baina gordainki ez du erran nahi zikinki. Etxahunen erranek, behar bada poxi bat, beharri axala kolpatzen dute, bainan kontzientziaren barnea ez dute ahultzen. Kontzientziaren barnea, baitute erakaspern askoz argitzen eta atzartzen». (11)

Larzabalek, Etxahun obrarekin euskal antzerkigintza ozka on batez goratu zuen. Bihurgune garrantzitsua izan zen. Taldea herriz-herri ibili zen, orotara 15 emanaldi eskainiz.

Etxahun obrarekin, Larzabalen omena hedatu zen Lapurdin eta Baxenabarren. Eta gero, bere talentua baieztatu zuen, kasik urtero beti zerbait berri idatziz, haren antzerkiak Hazpandarrek bezala beste talde batzuek ere estreinatzen zituztela:

1953an: *Bordaxuri*, Hazparnen;

1954ean: *Nork hil du Oihanalde* Ezpeletan eta Urruñarrek bi obra taularatu zituzten urte berean: *Basabeltz* eta *Portu Xoko*;

1955ean: *Hiru ziren* Ezpeletan eta *Hila espos* Urruñan;

1957an: *Herriko bozak*, urte berean lau talde desberdinek eman zuten, herriak zirela: Mugerre, Hazparne, Irisarri eta Eiheralarre;

1958an: *Berterretx* Hazparnen eta *Urrika latza* urte berean lau talde desberdinek emanik: Mugerre, Urruña, Irisarri eta Eiheralarre;

1960ean: *Mugari tiro* Hazparnen;

1963an: *Nor da hobenduna?*, Hazparnen; *Paper mende* Urruñan eta Arrosan.

Erran nahi baita, 1952tik eta 1963a bitartean hamahiru antzerki berri! Ahantzi gabe, Hazparnen zegoelarik egin komedia irringarriak ere beste anitz herritan emanak zirela. Idazten zituen ere esketxak “Lurraren Besta” egunean karroza apainduen gainean antzezteko, baita geroago, irratiz zabaltzeko.

Antzerkiez beste, artikulua idatzi zituen, *Aintzina* eta *Othoizlari* aldizkarietan.

Euskaltzain oso

Euskal antzerkigintzari sekulako bultzada ematen zion urte haietan, Larzabal jaun apezak bere erretore kargua kar berarekin zeraman, arrantzaleez eta haien familieez ere hamar urtez artoski arduratuz.

Horiek horrela, Euskaltzaindiak Piarres Larzabal izendatu zuen Euskaltzain oso, 1960ean zendu zen Jean Elissalde *Zerbitzari* apezaren ordezkatzeko. Elissalde eta Larzabal, biak azkaindarrak izanez, ekitaldi ofiziala Azkainen iragan zen, 1963ko azaroaren 10ean.

Bere mintzaldia horrela hasi zuen:

“Euskaltzaindiko lagun batzuk entzun ditut, beren aitamen merezimenduen laudatzen, euskara irakatsirik. Berehala diot, ene aitamek, alde horretatik, ez zutela merezimendurik. Zer nahi duzue irakats ziezadaten? Ez zekiten ta besterik!» (12)

Gero, *Zerbitzari* zenaz mintzatu aitzin, bere aitaxitzat hartu zuen Piarres Lafitte kalonjeaz hauxe erran zuen:

“Uztaritzeko ikastetxean sartu nintzelarik, gure apez irakasleak ikertu nituen begiz eta bihotzaz... Bat aurkitu nuen otsoa, bestea marrakaria, hirugarrena kixkila eta azkena kukusoketaria... Irri-egilea zen, bakarrik, Lafitte jauna. Eta ez zuen dudaz edo ezpain arrasaz irri-egiten, baina gorputz eta arimaz, gerria zumea bezala plegatuz, karkailaz eta lurrari agurka.” (13)

Piarres Lafitte kalonjeak aldiz, bere erantzun mamitsua, hitz hauekin bukatu zuen:

“Lehenago, Alphonse Daudet-ek “L’Immortel” izkiriatu zuen Frantziako Akademiak jostatu beharrez. Nork jakin zuk ez gaituzunetz komedia berri batean Euskaltzain zaharrak galanki jorratuko? Hobe, funtsean, hala balitz, zuri esker nolazpeit bederen menderen mendetan Euskaldunek jakin dezaten, bitxi bagara bitxi, lanean ari izan garela euskararen salbatzeko esperantza bitxiarekin.” (14)

Familia oso bat apezetxean

Zokoako erretoreak, bere eginbeharrak zintzoki bete zituen: itsasontzi baten itxura daukan San Frantses Xabier eliza eraikiz, halaber apezetxea eta hilarriak. Horiek oro obratu zituen, erran gabe doa, Zokoartarrek berek asko lagundurik.

Hainbeste lanen artetik, astelehenetan, maiz joaten zen Azkaingo familaren agurtzera. Gustatzen zitzaion aitarekin musean aritzea, eta behar orduan, aita laguntzen zuen ardi ile mozten. Biziki trebea omen zen lan horren egiteko.

Xehetasun hau ere eman nahi nizueke. Behin, norbaitek jo zuen apezetxeko atean. Larzabalek berehala zabaldu. Mutil gazte bat zen, ihes zetorrena eta non lo egin ez zekiena. Larzabalek aterbetu zuen. Idiazabaleko mutilak kontatu zion bere zorigaitza: ezkontzeko eguna finkatua zutela eta alde egin behar ukan zuela. Larzabalek erran zion: betorrela zure andregai eta nik ezkonduko zaituztet. Larzabalek ezkondu zituen beraz Esteban Arizmendi eta Belen Larrañaga lazkaotarra eta proposatu zien apezetxean berean bizitzea, Belenek gelaritza edo mirabetza segurtatuko zuela baldintzarekin. Ezkontzatik lau haur sortu ziren. Larzabal apeza beraz, bere apezetxean, familia oso batez ingurutua bizi izan zen, denek “Aitatxi” deitzen ziotela.

Ez dut, Iparraldean behintzat, horrelako beste kasurik ezagutzen. Horren egiteko ere Larzabal izan behar zen!

Abertzale ildotik

Bere erretoregoa ahal bezain ongi eramanez, antzerki idazten segituz, gure gaurko protagonista gero eta gehiago murgildu zen abertzale ildoan.

Enbata mogimendu abertzale eta europazalearen sortzaileetarik izan zen, eta izen bereko kazetan, euskarazko artikulu nagusia hark egiten zuen.

Mixel Labegueriek musikatu zion *Bakearen urtxoa* kantuaeren hitzak ere harenak ziren.

Herria astekarian kronika berri bat zabaldu zuen “Mugaz bertzaldetik”, Hegoaldeko anai-arreben berri emateko, eta bereziki, Frankismoaren basakeriak salatzeke.

Historian oinarrituak ziren baina abertzaletasun modernoaren ikusmoldea ematen zuten bi antzerki idatzi zituen: *Matalas* eta *Ibañeta*.

Etak Melinton Manzanos polizaburua 1968an erahilez geroz bereziki, iheslariak dozenaka baizetozen Iparraldera, haien laguntzeko elkarte bat behar-beharrezkoa zela eta, 1969an Anai-Artea abiarazi zutenak izan ziren: Larzabal, Monzon eta Angel Arregi.

Munduak jakin zezan Francok sei Euskaldun hiltzera kondenatu nahi zituela, Erakunde armatuak 1970ean Eugen Beilh aleman kontsulordea bahitu baitzuen, Larzabal eta Monzon hautatu zituen boz-emaile gertakari hartaz kazetariekin mintzatzeko.

Ondorioz, Larzabalek hil-mehatxuak ukan zituen, eta bere buruaren zaintzeko, pistola sakelari zerabilen. Ez zen gehiago mugaz bestaldera pasatzen, eta beraz, ez zihoan Euskaltzaindiko bilkuretara.

Iheslariak eta elizkizunak

Iheslariak elizkizun baten beharretan gertatzen zirelarik, Zokoako erretorearen ikustera zihoazen. Horrelaxe beraz, hirurogeita lau ezkontza benedikatu zituen, larogeita lau bataio egin, eta onartu zuen ere, Etako bat Hegoaldean erortzen zelarik, haren arimaren alde hil-meza ematea. (15)

Hil-meza haietan egin predikuak plazaratu zituen 1978an, *Nere mendixkatik – ETako gudariez apez bat mintzo* liburuan. Orotara 14 prediku badira, 24 sasi-gudariaren hil mezetan eginak, baita aitzinsolas gisa, bere gogoetak: Ipar Euskadira etorriak eta Eliza, Borroka armatua eta moralak, Gudariaren konfesiok, Zergatik ez naizen ETAn sartu, eta beste. (16)

Hil-meza haiek 1973an hasirik 1977a arte iraun zuten.

Eta iheslariaren sostenguz, gose greba batean ere parte hartu zuen, Hendaiaiko Santa Ana elizan, 1979an.

Piarres Larzabalek utzi digun uzta

Gaur omentzen dugun antzerkigile oparoak, behin baino gehiagotan, errepikatu zidan ehun obra baino gehiago idatziak bazituela, horietarik asko karroza apainduen edo beste gisako topaketetan emanak izan zirenak, halaber hiru ikusgarri Oiartzungo taldearentzat.

Jakinez bere obra barreiatua zela, Larzabalek hiru pertsona hautatu zituen bere lanen bilketaz arduratzeko: Piarres Xarriton, Roger Idiart eta Daniel Landart.

Piarres Xarriton euskaltzainak beregain hartu zuen sail hori, besteek ere pixka bat laguntzen zutela. Elkar argialetxeak, Euskaltzaleen Biltzarra elkarteak diruztaturik, *Idazlanak* izenburupean, zazpi liburuki hauek plazaratu zizkion:

- 1 -- *Etxahun eta...*, 18 komedia labur (1991);
- 2 – *Bordaxuri*, 6 antzerki obra (1991);
- 3 – *Orreaga*, 8 antzerki eta pastoral bat (1992);
- 4 – *Matalas*, 9 antzerki (1992). Orotara 42 komedia eta drama beraz.
- 5 – *Ipuin eta ixtorio* (1996). *Gure Herria* azdizkarian agertuak.
- 6 – *Etnografia solas eta hitzaldi* (1996);
- 7 – *Oroitzapenak* (1998). – Biografia honen egiteko asko baliatu dudana liburukia...

Zazpi liburuki horiei eta lehenago aipatutakoei gehitu behar zaie:

- *Anai-Artean* (Angel Arregi jaunak eskuratu Larzabalen artxiboak) – Txalaparta, 1996.

Larzabalen idazkera ongi ikertu zuen Piarres Xarriton euskaltzainak idazten zuen Eusko Jaurlaritzaren *Antzerti* aldizkarian:

«Ez dut uste baden gure literaturan beste idazle anitzik bere herritarren sentimendu, kezka eta gogoetak, hots herriaren bizi guzia hain barnatik sumatu duenik eta bere bereak dituen solasen bitartez taulen gainean, bizi bizia, argitaratu». (17)

Hainbeste lan mota desberdin erabilirik, hainbeste kezka eta buru-hauste jasanik eta ere gainditurik, Zokoako apeza eritu zen eta Zokoako erretoregoa utzi zuen 1979an.

Azken urteak frango dorpeak iragan zituen. Eskerrak Arizmendi-Larrañaga delako familiak, eraiki berria zuen etxean, bururaino bere ondoan atxiki zuela.

Zokoako lehen eta azken erretorea izan zen Piarres Larzabal bere parropian hil zen 1988ko urtarrilaren 12an, 73 urtetan.

Arrunt eritu aitzin halere, azken «balentriaño» bat asmatu zuen, teatro aire bat zeukana... Bere ehorzketako predikua berak izkiriatzea! Hori ere pentsatu behar zen... Eta horrek ere tira-birak sortu zituen! Bikario generalak ez baitzuen horrelakorik onartu nahi. Azken finean, Larzabalen adiskide mina zen Roger Idiart azkaindar apezak irakurri zuen.

Aurten ehun urte ukanen zituen jaun erretorearen gorputza Zokoako hilerrietan ehortzia dago.

Azken hitza

Pertsonalki ezagutu nuen Piarres Larzabal gizon ona zen, biziki ona.
Ausarta. Osoa. Balentrialaria.
Zerbait buruan hartuz geroz, bururaino eramaten zuen.
Irriz ezin asea, eta denbora berean, arras serioa.
Beti zerbitzu egitera ekarria.
Errotik jendakina. Apez apala. Otoizlaria.

Funtsean berak hauxe zioen:

«Askoren ustetan, ni antzerkigile komedialari bat naiz, oroz-gainetik. Gutik duke pentsatzen otoizlari bat izan naitekeela. Bizkitartean anitz aldiz, gauaz eta egunaz, Jainkoarekin eta haren sailduekin kurutzatzen naiz eta luzaz goxatzen...».
(18)

Agur eta ohore zuri Piarres Larzabal euskaltzaina,
Euskal sortzaile eta eraikitzaile bikaina.

Eta bukatuko dut Azkaingo herriak, eliza saihetsean, ezarri oroitarriko hitzak irakurriz:

Herritar leial
Erretor apal
Idazle zabal
Gogotik ez gal
Piarres Larzabal

Daniel LANDART

Baionan, 2015ko urriaren 16an

PS. - Eskerrak bihurtzen dizkiet Daniel Salaberry Azkaingo ilobari eta Jean-Pierre Ibarboure Maritxu iloba zenaren semeari, baita Mikel Epalza Zokoako apezetxean bizi den aspaldiko lagunari, argitasun eta xehetasun interesgarriak emanik. Eskertzen dut ere Mizel Jorajuria familiakoekin harremanetan sartzeko lagundurik.

- 1 Daniel Salaberry Larzabalen ilobak eta Jean-Pierre Ibarboure Maritxu ilobaren semeak eman argitasunak. Bestalde, etxeoenganik entzun zuten Anttonen heriotzaz bi bertsio badaude. Armadako buruzagiek familiari jakinarazi zioten: «Antoine jadanik eri zen eta txertoek kalte eginik hil izan da». Hori bertsio ofiziala. Aldiz hil eta bi urteren buruan, Angoulême hirian soldadugoa eginik zetorren gizon batek erran zion Piarres Larzabal apezari: «Armadako buruzagiek zaldi hezgaitz bat eman zioten, beren artean erranez « que le Basque allait bien le dresser », baina zorigaitzez, haren putarrak burua arraildu zion eta hartarik hil zen».
- 2 Piarres Larzabal – *Idazlanak I* - Piarres Xarriton euskaltzainak paratu liburutik - Elkar – 1991.
- 3 Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.
- 4 Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.
- 5 Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.
- 6 *Zeruko Argia* – «Gerrilleroen patriarka Zokoakoa - Aita Lartzabal: Erresistentziarekin beti». I. Zubiondo eta Xalbardin.
- 7 Piarres Larzabal – *Idazlanak VII – Oroitzapenak* – Elkarlanean, 1998.
- 8 Piarres Larzabal – *Idazlanak VII – Oroitzapenak* – Elkarlanean, 1998.
- 9 *Zeruko Argia* astekaria «Gerrilleroen patriarka Zokoakoa - Aita Lartzabal: Erresistentziarekin beti». I. Zubiondo eta Xalbardin.
- 10 Piarres Larzabal - *Idazlanak VII – Oroitzapenak* - Piarres Xarriton euskaltzainak paratu liburutik - Elkarlanean - 1998
- 11 *Herria* astekarian, 1952ko azaroaren 27an.

- 12 Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.
- 13 Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.
- 14 Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.
- 15 *Altxa Mutillak* itsas gazteriaren aldizkaria – 8. zenbakia – 2004.
- 16 *Nere mendixkatik* – Dizkola argitaletxea, 1978.
- 17 Antzerti – *Matalas* - Eusko Jaurlaritza – Kultura Saila – Iraila 1984. 69. alea.
- 18 Piarres Larzabalen *Idazlanak VII - Oroitzapenak*. Elkarlanean 1998.